

GREEN FILM

Produzio zinematografiko jasangarri baterako kalifikazio-sistema



Zer da Green Film?

Gida gisa diseinatutako **erreminta** bat ikus-entzunezko ekoizleek ingurumenarekiko errespetuzko modu batean lan egin dezaten.

Ikus-entzunezko ekoizpenen ingurumen-jasangarritasuna ziurtatzen duen **marka** bat.

Filmaketa jasangarriko estrategia eta erremintak aplikatzeko eta jasangarritasunarekin lotutako prestakuntza-jarduerak kolektiboki sortzeko asmoz modu koordinatuan lan egiten duten erakundeek osatutako **sare** bat.

Nola funtzionatzen du Green Film erremintak?

Filmaketaren aurretik

Egiaztapen-zerrenda baten bitartez, zera adierazten dute ekoizleek: filmaketa zehar Green Filmeko kalifikazio-sisteman zerrendatutako ingurumen-jasangarritasuneko zer irizpide bete nahi dituzten.

Filmaketa zehar

- Onartutako irizpideak errespetatzeko konpromisoa hartzen du ekoizpenak.
- Egiaztatze-organismoak irizpideak benetan betetzen ari ote diren egiaztatzen du.

Filmaketaren ondoren

- Filmaketa hasi aurretik ekoizpenak aitortutako ingurumen-jasangarritasuneko irizpideak bete ote diren aztertzen du egiaztatze-organismoak.
- Egiaztapena baikorra baldin bada, egiaztatze-organismoak ekoizpenari Green Film jasangarritasun-ziurtagiria ematen dio.

Zergatik onartu Green Film?

- Ikuspegi ekologikoa sustatzen du komunikazio-ahalmen handia duen sektore industrial batean.
- Erabiltzen erraza den eta eraginkortasun frogatua duen erreminta bat da.
- Hainbat lurraldetan eta koprodukzioetan lan egiten dutenean ekoizleei ekologizazioa errazten dien elkarbanatutako sistema bat da.
- Funts zinematografikoek, batzorde zinematografikoek, irrati-difusioko organismoek edo bestelako erakundeek jasangarritasunari begira planteamendu bateratu bat sustatzen duen sare batekin bat egitea ahalbidetzen du.

Berriak

Green Filmeko kalifikazio-sistema eguneratzeko nahiak bi arrazoi ditu: alde batetik, jasangarritasunaren eremua, ikus-entzunezkoa bezalaxe, etengabeko mugimenduan eta eraldaketan dagoela jabetzea, eta bestetik, hainbat herrialdetan gero eta gehiago erabiltzeak kontuan hartu beharreko ikuspuntuak zabaldu izana.

03 – 2024 edizioa emaitza bat dela esan dezakegu, **argitasun, irisgarritasun eta jasangarritasun** terminoetan kalifikazio-sistemaren eraginkortasuna handitzera bideratutako eguneratze-prozesu baten emaitza, hain zuzen ere. Eguneratze-prozesua modu inklusibo eta zientifikoan gauzatu zen, Europa mailako kontsulta publikoko prozesu ireki baten bitartez, ISO 14024 arauaren printzipioetan oinarrituta. 2022an Green Film Research Labek egin zuen ACVaren analisi konparatiboaren ondorioekin bateratu ziren kontsultaren emaitzak.

Berrietasun nagusiek honako hauekin dute zerikusia:

- **Osoetasuna:** 9 irizpide berri txertatu dira.
- **Moldagarritasun handiagoa:** irizpide gehiagok daukate orain betetze-atalase mailakatuak.
- **Irisgarritasuna:** irizpide batzuk berridatzi egin dira argitasuna eta ulermena errazteko.
- **Eraginkortasuna:** kalifikazio-sistemak jasangarritasun-praktika onetarantz orientatzeko gaitasuna hobetzen du, puntuazio handiagoarekin sarituz ingurumen-inpaktuaren murrizketa handiago baterantz daramaten ekintzak, kostu ekonomikoak gutxitzen laguntzen duten bitartean.
- **Gizarte-erantzukizuna:** planteamendu jasangarri bat optimizatzeak zera dakar zentzu zabalagoan, ingurumenaz gain beste jasangarritasun-forma batzuetara zuzentzea gure arreta. Arrazoi horregatik, gizarte-erantzukizunari dagozkion hiru irizpide barne hartzen dituen atal berri bat gehitu da.

Informazio gehiago hemen: www.green.film

AURRE-ESKAKIZUNAK

*Jasangarritasunaren
plangintza*

Helburua

Planifika ezazu aldez aurretik gauzatuko diren jasangarritasun-irizpideen aplikazio praktiko eta arina, informazio erraza eta zehatza erabiliz, ikus-entzunezko ekoizpen baten ingurumen-inpaktua ahal den gehiena murriztearren, baina filmaketako langileen eta ekipoaren lana mantsotu gabe. Planifika ezazu aldez aurretik ekoizpenaren mobilizazioa garraioa optimizatzeko eta horrela ingurumen-inpaktua eta inpaktu ekonomikoa murrizteko. Planifika ezazu hondakinen murrizketa eta kudeaketa.

AURRE-ESKAKIZUNA (DERRIGORREZKO ESKAKIZUNA): JASANGARRITASUNAREN PLANGINTZA		Puntuak
PR1	Jasangarritasun-plana- Aurre-eskakizuna (derrigorrezko eskakizuna)	✓

Irizpidearen deskribapena:

PR1 JASANGARRITASUN-PLANA

Eskakizunak

Ekintza guztiak filmaketa hasi aurretik osatu behar dira.

Protokoloaren aplikazioaren arduradun baten izendapena (jasangarritasun-arduraduna); ingurumen aholkularitzaren eremuan gutxienez bi urteko esperientzia duen profesional bat.

Jasangarritasun-plan baten lanketa, non kalifikazio-sisteman adierazitako irizpideetan oinarrituz, ekoizpena jasangarriagoa izateko hautatutako aukerak deskribatuko diren.

Gainera, ondoko oharpen hauek eman behar ditu nahitaez:

- **Garraioa:** Jasangarritasun-planak «Garraioaren optimizazioa» izeneko atal bat eduki behar du. Plan horrek honako hauen inguruko oharpen argiak eman behar ditu: nola optimizatu nahi diren desplazamenduak eta nola murriztu emisioak bai platoan (eguneroko bidaia ostatutik platora)

bai eta etxetik platorako bidean edo plato desberdin batetik plato berri batera («etxetik platora» edo «A platotik B platorako» bidaiak). Azken kasu honetan, kostuak ekoizpenak ordaintzen baldin baditu bakarrik. Oinarri gisa izan behar duen printzipioa zera da, ibilgailu eta desplazamendu ahalik eta gutxien erabiltzea.

- **Hondakinen kudeaketa:** Jasangarritasun-planak «Hondakinen kudeaketaren optimizazioa» izeneko atal bat eduki behar du, non honako hauen inguruko oharpen argiak emango diren: nola gauzatuko den hondakinen kudeaketa bereizia eta nola hobetuko den sortutako hondakinen kudeaketa, birziklapenaren printzipioan oinarrituta (murriztu, berrerabili, birziklatu eta berreskuratu). Horrez gain, hondakinen ezabapenaren arloan platoetan indarrean dagoen araudiari buruzko informazioa ere eduki behar du. Azkenik, platoko espazioen barruan eta oinarritzko kanpalekuan, zaborrontzi egokiez hornitutako zona hesituak sortzea aurreikusi behar du, legearen arabera hondakinak non bota behar diren adierazteko oharpen zehatz eta argiekin.

Jasangarritasun-plana posta elektronikoz bidaliko da:

- ziurtapen-organismora;
- izendatutako alderdiari (bidezko bada);
- aukeratutako egiaztapen-organismoari;
- ekoizpen-taldeko kide bakoitzari.

Jasangarritasun-arduradunak hasierako bilera bat egin behar du. Bilera horretara bertaratuko dira ekoizlea edo haren ordezkariak (lineako ekoizlea edo ekoizpen-burua), zuzendaria, departamentuko buruak eta ingurumena babesteko abian jarriko diren ekintza guztietan inplikaturako pertsona guztiak. Bileraren akta bat idatzi behar da.

Filmaketa bukatzean, Green Filmeko arduradunak irizpide bakoitzerako egin diren ekintza guztiei buruzko txosten bat idatzi beharko du, adierazitako edukiei eta jasangarritasun-planean aurreikusitako ekintzei espezifikoki erreferentzia egingo diena.

Oharrak eta iradokizunak

Jasangarritasun-planak plato bakoitzean gauzatu behar diren ekintzei buruzko erreferentzia zehatza eduki behar du. Filmaketa gauzatuko den eremua ezaugarritzen duten ingurumenaren alderdi kalteberak edo kritikoak (zona babestuak, hirigune historikoak, trafikoko askoko hiriguneak, etab.) nabarmentzeko

asmoz testuinguruaren analisia ere eduki behar du, bai eta jarduerak alderdi kritiko horietan izango duten eragina ere, planaren barruan ondorio horiek murrizteko irtenbide egokiak adieraztearren, hala filmaketan zehar nola behin amaitu ondoren ere.

Planaren helburu nagusia langile guztiak eta taldekideak ingurumen-praktika onenen aplikazioan inplikatzeko da.

Hasierako bilera prestakuntzarako aukera gisa hartu behar da. Bilera horretan departamentu bakoitzari informazio espezifikoa emango zaio: adibidez, pertsonak eta salgaiak garraiatzen dituzten gidariek xehetasunez ezagutu behar dituzte garraioaren optimizazio-plana eta garraio publikoa ahal den guztietan erabiltzeko premia.

Ziurtapen-organismoak edo izendatutako alderdiak (bidezko bada) plana erakunde publiko inplikatuari bidali ahal izango diete, eta bereziki udal-batzordeei, tokiko erakundeiei bermeak eman ahal izateko eta plana arrakastaz gauzatzeari begira lankidetzak bultzatzeko.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopia aurkeztu behar dira:

- jasangarritasun-plana (filmaketa hasi aurretik);

jasangarritasun-arduradunaren izendapena eta curriculum (filmaketa hasi aurretik);

- plana erantsita taldekideei eta langileei bidalitako posta elektronikoak;
- hasierako bileraren akta;
- irizpide bakoitzerako aplikatutako neurriak adierazita edukiko dituen azken txostena.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua honakoak ebaluatzea da:

- taldekideek eta langileek plana behar bezala ezagutzen dutela;
- praktika egokiak aplikatzea garraioaren optimizaziorako;
- plato eta oinarriko kanpaleku guztietan hondakinak birziklatzeko edukiontzien benetako presentzia;
- edukiontzien erabilera egokia (laginak aleatorioki eginez, hondakinen ezabaketa hondakin ezabatzeari dagokionez tokiko oharpenen arabera egiten ote den egiaztatuz).

ATALAK

*Jasangarritasuna
praktikan*

Ekoizpen-metodoetan eragiten duten aukera artistiko eta antolamenduzkoetan oinarritzen da ikus-entzunezko obra bakoitza. Puntuazio-sistemak zera ahalbidetzen du, ekoizpen bakoitzaren ezaugarrien arabera gauzatu daitezkeen ekintza espezifikoak ebaluatu eta hautatzea.

Modu honetan, ingurumen-ikuspegitik jasangarriagoa den ekoizpeneranzko bide propioa aurkitu dezake bakoitzak.

Irizpide desberdinak (aukerako eskakizunak) onartzeak puntuazio espezifiko bat lortzera darama. Ziurtapenari dagokionez, ikus-entzunezko obra bakoitzak aurre-eskakizunak bete behar ditu, zeinak, beraz, funtsezkoak diren eta ez diren puntuatzen. Ikus-entzunezko obrak ziurtapena lortuko du hogeita bostetik (25) beherakoa ez den puntuazio bat lortzen badu, aurre-eskakizunen funtsezko izaeraren kaltetan izan gabe.

Ekoiztetxea EMASen erregistratua baldin badago, irizpideekin lortu behar den gutxieneko puntuazioa bost (5) puntutan murrizten da.

Ziurtapen-prozedurari buruzko informazio gehiago lortzeko, kontsulta ezazu Green Film egiaztapen-araudia.

Atalak:

A ATALA: Energia-aurrezpena

10



B ATALA: Garraioa eta ostatua

14



C ATALA: Catering

20



D ATALA: Materialen hautaketa

27



E ATALA: Beste ekimen batzuk

33



F ATALA: Gizarte-jasangarritasuna

36



G ATALA: Komunikazioa

41



A ATALA

Energia aurreztea



Helburua

Ikus-entzunezko ingurumen-inpaktuaren murriztapen eraginkorra bermatzea, klimaren emisio kutsatzaile eta aldatzaileak ahal den gehiena murriztuz eta baliabide energetikoen xahutzea saihestuz. Baliabideen erabilera arrazionalizatzea, aldi berean aurrezpen ekonomikoa erraztuz.

A ATALA: ENERGIA AURREZTEA		Puntuak
A1	Banaketa-saretik datorren elektrizitatearen erabilera	4 (gehi.)
A2	Energia ez kutsagarria	3 (gehi.)
A3	LED argiztapena	3 (gehi.)

Irizpidearen deskribapena:

A1 BANAKETA-SARETIK DATORREN ELEKTRIZITATEAREN ERABILERA

Eskakizunak

Banaketa elektrikoko sarerako aldi baterako konexioen bidez hornitutako energia bakarrik erabili behar da, tokiko hornitzaileekin harremanetan, berriztagarriak ez diren energia-iturriek elikatutako multzo elektrogenoen erabilera ahal den gutxienera murriztuz.

filmaketa-egunen % 100 sareko elektrizitatearekin > 4 puntu

filmaketa-egunen % 75 sareko elektrizitatearekin > 3 puntu

Oharrak eta iradokizunak

Banaketa elektrikoko saretik datorren elektrizitatearen erabilera kostu finko bat dakar, kontratua eta kostu aldakorrak orduko kilowatten arabera kalkulatzeko. Horrek askoz ere kostu txikiagoa dauka elektrizitate-sorgailu eramangarriak erabiltzeak baino. Lokalizazio bakoitzaren ikuskapenaren ondoren, filmaketa gauzatzen den eremuko energia-hornitzaile eskudunarekin kontaktatu behar da, aldi baterako konexioaren aukera egiaztatzeko.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- energia-hornitzailearekin edo hornitzaileekin sinatutako kontratuak;
- dagozkion fakturak;
- plato guztien laburpen-taula bat eta, plato bakoitzerako, elektrizitate-sare nagusirako konexioen erabileraren ala erabilera ezaren adierazpena, bai eta, erabiltzen badira, dagozkion hornidura-erreferentziak ere (hornitzailea, kontratua) erabilera-portzentaje orokorra erakusten dutenak.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, benetan erabilitako elektrizitate-iturria egiaztatzea.

A2 ENERGIA EZ KUTSATZAILEA

Eskakizunak

Iturri berriztagarrietatik datorren elektrizitatearen erabilera.

Aldi baterako konexioen bidez hirugarrenen elektrizitatea lor daitekeen lokalizazioetako filmaketen kasuan, iturri berriztagarrietatik bakarrik etor daiteke energia.

Beste kasu batzuetan, iturri berriztagarrietako sorgailuak erabili behar dira (adib. fotovoltaikoa, biodiesela, etab.) platoan energia sortzeko.

filmaketa-egunen % 100 iturri berriztagarrietatik abiatuta sortutako elektrizitatearekin > 3 puntu

filmaketa-egunen % 75 iturri berriztagarrietatik abiatuta sortutako elektrizitatearekin > 2 puntu

Oharrak eta iradokizunak

Erabilitako energia % 100ean iturri berriztagarrietatik datorrela frogatzeko, erabili itzazu «jatorri-bermea» ziurtagiria duten hornigaiak edo lortu ezazu ekoizpenari emandako elektrizitate guztia sortzeko erabilitako energia-iturri guztien berriztagarritasunari buruzko hornitzailearen sinatutako aitopena.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- hornidura-kontratuak;

- hornitutako elektrizitate guztiaren (kontratuaren arabera) iturri berriztagarrien sorburua adierazten duen energia-hornitzailearen aitortpena; edo hornikuntzaren «jatorri-bermea» ziurtagiria;
- erabilitako iturri berriztagarrietatik abiatuta dabilzan elektrizitate-sorgailuen erosketaren edo alokairuaren fakturak eta erabileraren froga fotografikoak;
- plato guztiak bilduta dauden laburpen-taula bat, platoetako bakoitzari dagokionez energia berriztagarriko iturriak erabiltzen ote dituen ala ez adieraziz, guztizko erabilera-portzentajea seinalatuz.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, kontratatutako aldi baterako konexioa energia berriztagarrietatik datorren hornikuntza-aukerarekin egiaztatzea edo erabilitako iturri berriztagarrien sorgailuen presentzia.

A3 ILUMINACIÓN LED

Eskakizunak

Mugatu ezazu argiztapen goriko, halogenoko edo fluoreszenteko sistemen erabilera, eta aukeratu LED teknologia daukaten argiztapen-gailuak. Erabilitako argiztapen-sistemen % 100 LED motakoak dira > 2 puntu Erabilitako argiztapen-sistemen % 75 LED motakoak dira > puntu 1

Oharrak eta iradokizunak

Lanpara gori, halogeno eta fluoreszenteak dituzten argiztapen-sistemek LED lanparek baino askoz ere elektrizitate gehiago kontsumitzen dute, eta horregatik ingurumen-jasangarritasunean eta kostuetan eragin negatiboa daukate.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- erabilitako argiztapen-sistemen erosketaren edo alokairuen fakturak;
- LED kopuruaren portzentajea erakusten duen zerrenda bat argiztapen-sistema guztiarekin alderatuta.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak platoan bertan egindako egiaztapenaren helburua benetan erabilitako argiztapen-sistemak egiaztatzea eta idaztea da.

B ATALA

Garraioa eta ostatua



Helburua

Garraio motordunear egindako desplazamenduetatik datozen emisio kutsatzaileak murriztea, erabili beharreko ibilgailuak hautatuz.

Ekipoaren ostaturatzeak eragindako ingurumen-inpaktua murriztea filmaketa-lokalizazioetatik hurbil dauden eta kudeaketa jasangarria ziurtatua duten ostatuak aukeratuz.

B ATALA: GARRAIOA ETA OSTATUA		Puntuak
B1	Ekipoen garraiorako ibilgailu teknikoak	2
B2	Eguneroko lekualdaketak filmaketan zehar	4 (gehi.)
B3	Etxetik lanerako bidaiak eta platoen arteko lekualdaketak	3 (gehi.)
B4	Ostatua: platotik 10 km baino gutxiagora	4 (gehi.)
B5	Ostatua: ostatu ziurtatuak	3 (gehi.)

Irizpidearen deskribapena:

B1 EKIPOEN GARRAIORAKO IBILGAILU TEKNIKOAK

Eskakizunak

Erabili itzazu bakar-bakarrik Euro VI homologazioa edo goragokoa ([CE] Araudia, 595/2009 zk., aldatutako bertsioan) duten ibilgailuak.

Ekipo teknikoen garraiora zuzendutako ibilgailuek bakarrik bete behar dute eskakizun hau.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak;
- alokairu-kontratuak, bidezko bada.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, benetan erabilitako ibilgailuen berri jasotzea eta baimendu gabeko ibilgailuak (Euro V edo beheagokoak) ez direla erabiltzen ari ziurtatzea.

B2 EGUNEROKO LEKUALDAKETAK FILMAKETAN ZEHAR

Eskakizunak

Irizpide hau pertsonen eguneroko garraioari aplikatzen zaio (langileak eta filmaketa-taldea) ostatutik platorako bidaietan.

Erabili bakarrik:

- garraio publikoa (trena, autobusa, tranbia, metroa);
- mugikortasun mantsoko bitartekoak (pedaldun bizikletak, bizikleta elektrikoak, oinez);
- ibilgailu elektrikoak;
- gas naturalez propulstaturako ibilgailuak, Petrolioko Gas Likidotukoak (PGL) edo hibridoak.

Eskakizun hau filmaketan zehar pertsonen garraiorako erabilitako eta ostatuen eta platoaren artean erabilitako ibilgailuek bakarrik bete behar dute.

- Garraio publikoa eta mugikortasun mantsoa > 4 puntu
- Ibilgailu elektrikoak > 3 puntu
- Ibilgailu hibridoak edo gas naturalekoak edo PGL > 2 puntu

Oharrak eta iradokizunak

«Ostatu» gisa ulertzen da filmaketa-taldeak eta langileek erabilitako edozein ostatu mota. Hau aplikagarria da halaber filmaketako langileak edo ekipoa etxean geratzen denean eta egunero joaten denean platora.

B1 eta B2 irizpideak uztartu ahal izango dira non eta bidaiarien garraiora bideratutako ibilgailuek B2 irizpidea betetzen badute eta gainerakoek B1 betetzen badute, kasu horretan dagozkion puntuak batuko direlarik.

Egiaztapen-prozedura

Puntuazioari dagokionez, filmaketan zehar filmaketa-taldeak eta langileek platoraino beren ostatutik lekualdatzeko erabilitako bitartekoak hartzen dira kontuan, eta zerrendako puntuazio baxuena ematen da.

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- erabilitako ibilgailuen zerrenda bat;
- garraio publikorako txartel arruntak edo ordainketa-txartelak;
- garraio pribatuko ibilgailuen matrikulazio-ziurtagiriak;
- garraio pribatuko ibilgailuen errentamendu-kontratuak eta mugikortasun mantsoko bitartekoak;

- norberaren bitartekoekin egindako lekualdaketa mantsoetarako, baliozkoa izango da ekoizlearen edo lineako ekoizlearen sinatutako aitortpena, non langileak, lekualdaketak eta datak zehaztuko baitira.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak platoan egindako egiaztapenaren helburua zera da, benetan erabilitako ibilgailuen berri idaztea eta baimendu gabeko ibilgailuak ez direla erabiltzen ari ziurtatzea.

B3 ETXETIK LANERAKO BIDAIK ETA PLATOEN ARTEKO LEKUALDAKETAK

Eskakizunak

Filmaketaren hasieran eta bukaeran «etxetik lanerako» lekualdaketatetarako pertsonen (filmaketako langileak eta taldea) garraioari aplikatzen zaio irizpide hau, eta filmaketan zeharreko lokalizazioen arteko lekualdaketen ondoriozko ostatu-aldaketari.

Erabili ezazu trenbideko, errepideko edo itsasoko garraio publikoa lekualdaketak egiteko:

- etxetik filmaketaren lokalizaziora, filmaketaren hasieran eta bukaeran;
- ostatu-aldaketa dakarten filmaketaren lokalizazioen artean.

Baimendutako moduak: trena, metroa, autokarra, autobusa, automobil partekatua (gutxienez 3 pertsona), itsasontzia.

Salbuespena: 7 orduetik gorako bidaietarako (irizpideak kontuan hartzen dituzten moduen arteko edozein konbinaketa erabiliz kalkulatuak), baimenduta daude hegazkinetako bidaiak, baina baldintza honekin: hegazkin-bidaiaren CO2 emisioak konpentsatzen badira karbono-kredituen erosketaren bidez edo ekosistemaren zerbitzuengatikoko beste ordainketen bidez (EZO).

baimendutako moduetan egindako lekualdaketen % 100 > 3 puntu

baimendutako moduetan egindako lekualdaketen % 75 > 2 puntu

Oharrak eta iradokizunak

Ekoizpenak ordaintzen dituen filmaketa-taldearen eta langileen bidaietan bete behar da eskakizun hori.

«Etxe» gisa ulertzen da filmaketa-taldea edo langileak abiatzen direneko bizilekua/helbidea. Lekualdaketa-moduen portzentajea modu honetan ulertzen da: baimendutako lekualdaketa-moduak erabiliz egindako lekualdaketa kopuruaren eta irizpidearen aplikazio-eremuaren barruan filmaketa-talde osoak eta langileek egindako lekualdaketa guztien kopuruaren arteko erlazioa.

Badira hainbat erreminta hegazkin-bidaien emisioak kalkulatzeko. Hona hemen zenbait adibide: **IATA CO2 Connect** y **Ecopassenger www.ecopassenger.org**.

Karbono-kredituak edo EZOak (Ekosistemaren Zerbitzuengatikoko Ordainketak) lortzeko,

erabili itzazu nazioarte mailako ekimen ziurtatuak, edo erakunde publikoek onartutako araudi eta arauak betetzen dituzten ekimenak..

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Platoko langileen zerrenda bat eman behar duzu. Bertan «platotik etxera» edo «A platotik B platorako» bidaietarako irteera-lekuak adieraziko dira, ekoizpenak ordaindutako bidaiak bakarrik kontuan hartuz. Trenbide, errepide edo itsasoko bidaietarako, bidaiako fakturak edo txartel orijinalak edo kopiak aurkeztu. Partekatutako automobil-bidaietarako, idatzizko autodeklarazio bat aplikatzen da, non bidaiariak, ibilbideak eta datak zehazten baitira.

Hegazkineko bidaiengatiko konpentsazioen kasuan, halakorik balego, ekoizpenak egiaztagiri bat aurkeztu beharko du edo karbono-kredituen erosketaren faktura bat, non erabileraren helburua, data eta jasotzailea adieraziko baitira.

B4 OSTATUA: PLATOTIK 10 KM BAINO GUTXIAGORA

Eskakizunak

Hautatu ezazu ostatu bat platotik 10 km-ko erradio baten barruan, platoak filmaketa-egun bakarrerako erabiltzen diren kasuetan izan ezik.

Platotik hurbileko (<10 km) ostatuetan emandako gau kopuruaren % 100 > 4 puntu
Platotik hurbileko (<10 km) ostatuetan emandako gau kopuruaren % 75 > 3 puntu

Oharrak eta iradokizunak

Ostatuaren hautaketak bere eragina dauka ibilgailuan egindako lekualdaketetan eta, ondorioz, emisio kutsatzaileetan eta erregai-kostuetan; horregatik, garrantzitsua da filmaketaren lokalizazioetatik ahal den ostatu hurbilena aukeratzea. Hurbileko ostatu bat edukitzeak ere laguntzen du garraioaren antolamendua sinplifikatzen, denboraren kudeaketari eta gidarien lan-erritmoa murrizteari dagokienez.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- filmaketako langileen eta taldearen ostatu-instalazioen zerrenda, ostatu guztien kopuruarekin alderatuta hurbileko ostatuen kopurua erakutsiz;
- erabilitako ostatuei dagozkien fakturak (edo antzeko frogak);
- ostatuen eta platoaren arteko benetako distantzia, Interneteko zerbitzu geografiko baten bidez kalkulatu, adibidez: Google Maps, OpenStreetMap edo baliokidea.

B5 OSTATUA: OSTATU ZIURTATUAK

Eskakizunak

Hoteletako ostatuari dagokionez, instalazio jasangarrietan hartu behar da ostatua, ondoko aukeren artean hautatuz:

EBko etiketa ekologikoak (edo ISO 14024aren antzeko I motako ingurumen-ziurtagiri batek) ziurtatutako edo EMASean erregistratutako ostatuetan egindako gaudien % 50 gutxienez > 3 puntu.

Turismo Jasangarriko Kontseilu Globalak (GST) ziurtatutako ostatuetan egindako gaudien gutxienez % 50 > 2 puntu.

Oharrak eta iradokizunak

Baliodun gisa aitortutako ostatuak EMAS araudian (Ekogestioko eta Ekoauditoretzako Batasuneko Araudian) erregistratutakoak dira edo EBko etiketa ekologikoarekin edo nazioartean aitortutako beste ingurumen-etiketa batekin ziurtatuak, I motako ISO 14024 arauaren arabera (adibidez, Nordic Swan, Blauer Engel, etab.), edo, aukeran, EZO (Ekosistemaren Zerbitzuengatiko Ordainketak) ziurtapenaren arabera. Ziurtatuak dauden ostatuei buruzko eta EBko etiketa ekologikoari buruzko informazioa lortzeko, bisita ezazu **EU Ecolabel**.

Zer ostatu dauden erregistratuak jakiteko eta **EMAS** arauari buruzko informaziorako bisita ezazu.

Global Ecolabelling Network oso atari egokia da ingurumen-etiketak kontsultatzeko, I motako ISO 14024 araua betetzen dutenak barne.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- erabilitako hotelen zerrenda;
- haien ziurtapenak;
- ekoizpenak egindako gaudien kopuru osoa laburbiltzen duen taula bat, ziurtatutako ostatuetan egindako gaudien portzentajea adieraziz;
- ostatu-fakturak.

C ATALA

Catering



Helburua

Filmaketa-taldeari eta langileei elikadura osasuntsua eta kalitatezkoa ziurtatzea, baina errespetuzkoa ingurumenarekin, ahal den neurrian murriztuz catering eragiketen ondoriozko hondakinen sorkuntza eta ingurumen-ikuspuntutik eta ikuspuntu ekonomikotik antolamendu-erabaki garestietatik eratorritako CO2 emisioak.

C ATALA: CATERING		Puntuak
C1	Edateko ura <i>1. aukera: 3 puntu 2. aukera: 2 puntu</i>	3 (gehi.)
C2	Bazkarien hornidura <i>1. aukera: 4 puntu 2. aukera: 3 puntu 3. aukera: 2 puntu</i>	4 (gehi.)
C3	Aukera begetarianoa, ekologikoa edo tokikoa <i>Jaki begetarianoak: puntu 1 Osagai % 100 ekologikoekin edo tokiko ekoizpenekoekin prestatutako jakiak: Puntu 1</i>	2 (gehi.)
C4	Kafea platoan	2 (gehi.)
C5	Ahaleginak janariak ez xahutzeko	2 (gehi.)

Irizpidearen deskribapena:

C1 EDATEKO URA

Eskakizunak

Platoan egindako edateko uraren eta edari hotzen hornidura plastikozko botilak erabili gabe egin behar da. Edalontziak (edo antzeko beste ontzi batzuk) erabiliz edariak eskaintzen direnean, edalontziek ez dute erabili eta botatzekoak izan behar. Edateko urarentzat aukera hauek daude:

- 1. aukera (3 puntu):** Ur-hornidurako tokiko sarea eta ur-edalontzi berrerabilgarriak bakarrik erabili.
- 2. aukera (2 puntu):** Ur-banagailu independenteak eta ur botila edo edalontzi berrerabilgarriak erabili. Ur-banagailu independenteek dagokienez, hornidura-kontratuak haien berreskuraketa eta berrerabilera aurreikusi behar ditu.

Oharrak eta iradokizunak

Plastikozko ur-botilak eta botatzekoak diren edalontziak erabiltzeak egunero sortzen ditu hondakinak eta hondakinen bereizketarako tokiko legeen arabera ezabatu behar dira hondakin horiek, platoa kokatuta dagoen lekuaren arabera alda daitezkeen legeak izanik. Hondakin horiek saihestea ingurumen-irtenbide eraginkorra da bai ikuspegi ekonomikotik, bai eta antolamendukotik ere. Normalean, eskumeneko agintariek zonako uraren etengabeko kontrola egiten dute, zerbitzuaren erabiltzaileei kanila eta iturrietatik ur edangarria edateko aukera bermatuz; alternatiba gisa, ur-banagailu independenteen bidez eskaini daiteke ura. Betiere plastikozko botilak baino askoz ere ekologikoagoak izango dira banagailu horiek. Taldekideek garbitu ahal izateko moduko material batez egindako ontzi pertsonalizatuak edo termoak erabiltzea gomendatzen da. Irizpide hau errespetatzerakoan, garraio motordunaren erabilera ere zeharka murriztu daiteke, bai ur-botilak eta plastikozko edalontziak erosteko bai eta hondakinak ezabatzeko ere, CO2 emisioen ondorioak eta erregaiaren kontsumoa minimizatuz.

Egiaztapen-prozedura

Puntuazio-ondorioetarako, kontuan hartzen dira erabilitako administrazio-modu guztiak eta adierazitakoen arteko puntuaziorik txikiena ematen da.

Dokumentuen egiaztapena.

1. aukera:

Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- filmaketarako erabilitako platoen zerrenda bat, bai eta plato bakoitzean erabilitako tokiko ur-sarearen berri ere;
- Edateko uraren hornidurarako erabilitako termoen, edalontzi garbigarrien edo botatzekoak ez diren beste ontzi batzuen erosketa-fakturak, edo autoaitorpen bat non adierazten baita alde zuzenetik erosi direla eta egungo ekoizpenerako berrerabili direla.

2. aukera:

Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- ur-banagailu independenteen erosketari dagozkion fakturak;
- ur edangarria hornitzeko erabilitako termoen, edalontzi garbigarrien edo bestelako ontzi ez botagarrien erosketaren fakturak.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako

platoko egiaztapenaren helburua honako hau da: ura ez dela plastikozko botiletan edo edalontzi botagarrietan (edo antzeko beste ontzietan) eskaintzen.

C2 BAZKARIEN HORNIDURA

Eskakizunak

Filmaketako langileei eta taldeari eguneko bazkari nagusia zerbitzatzeko, hautatu aukera hauetako bat.

1. aukera (4 puntu): Platotik 5 km baino distantzia txikiagora kokatuta dauden jatetxeetan bakarrik jatea, edo baxera berrerabilgarria erabiliz platoan janariak prestatzeko jantoki mugikor bat erabiltzea.

2. aukera (3 puntu): Platotik 5 km baino distantzia txikiagora kokatuta dauden jatetxeetan gutxienez otorduen % 75 jatea, edo baxera berrerabilgarria erabiliz platoan janariak prestatzeko jantoki mugikor bat erabiltzea; gainerako zatia botatzekoak diren saski eta enbaseak erabiltzen ez dituen catering zerbitzu baten bitartez hornitu behar da, baxera berrerabilgarriarekin autozerbitzu moduko banaketa eskainiz.

3. aukera (2 puntu): Otorduak kontsumitzerakoan erabilera bakarreko saskiak eta ontziak erabiltzen ez dituen catering zerbitzu bat baliatzea, baxera berrerabilgarriarekin autozerbitzu-moduko banaketa bakarrik erabiltzen duen zerbitzua izanik.

Salbuespen gisa, mokadu bizkor bat jan ahal izango da platoan (adibidez otartekoak edo antzekoak) filmaketa etengabeko ordutegiarekin luzatuko dela aurreikusten denean. Salbuespen hau filmaketa-egunen kopuru osoaren % 30ari baino gehiagori ezin zaiola aplikatu ulertzen da.

Oharrak eta iradokizunak

Maiz askotan, catering edo kantina mugikorraren zerbitzua taldekideei platoan kontsumitzeko errazio indibidualak (zakote-ontziak) emanaz eskaintzen da, horrek hondakinen sorkuntza handitzea dakarrelarik. Beraz, irizpide hau betetzeko gakoa zakote-ontziak ezabatzea da.

Jatetxeko aukera catering zerbitzua baino jasangarriagoa da, baxera berrerabilgarriaren erabilera bermatzen delako beti, eta hondakinen kudeaketa sukaldariarena delako.

Baxera garbitzeko, hobe da Europar Batasuneko etiketa ekologikoa edo I

motako (ISO 14024) ziurtapena duten detergenteak aukeratzea.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

1. aukera:

- filmaketarako erabilitako platoen zerrenda bat, bai eta plato bakoitzerako erabilitako jatetxeen berri ere, jatetxeetan edo jantoki mugikorretan kontsumitutako otordu-portzentaje osoa adieraziz;
- jatetxeei dagozkien fakturak;
- kantina mugikorreko zerbitzu batekin sinatutako kontratua edo akordioa.

2. aukera:

- filmaketarako erabilitako platoen zerrenda bat, bai eta plato bakoitzerako erabilitako jatetxeen berri ere, jatetxeetan edo jantoki mugikorretan kontsumitutako otordu-portzentaje osoa adieraziz;
- jatetxeei dagozkien fakturak;
- jatetxe-zerbitzuarekin edo kantina mugikorrarekin sinatutako kontratua edo akordioa, non adierazten baita argi eta garbi otorduak ez direla sekula zerbitzatuko zakote-ontzietan.

3. aukera:

- jatetxe-zerbitzuarekin edo kantina mugikorrarekin sinatutako kontratua edo akordioa, non adierazten baita argi eta garbi otorduak ez direla sekula zerbitzatuko zakote-ontzietan.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, otorduak ez direla zakote-ontzi indibidualetan zerbitzatzen egiaztatzea eta, beharrezkoa izango balitz, platoan kontsumitutako aperitiboen salbuespenezko erabilera filmaketa-egun guztien % 30aren baimendutako mugaren barruan dagoela egiaztatzea.

C3 AUKERA BEGETARIANO, EKOLOGIKOA EDO TOKIKOA

Eskakizunak

Filmaketa-taldearen eta langileen eguneroko otordu nagusien % 100ak gutxienez janari begetarianoko edo beganoko alternatiba bat eduki behar du >

puntu 1.

Puntu 1eko hobaria ematen da, baldin eta otorduen % 100erako, osagai % 100 ekologiko edo tokikoekin/0 kilometroekin egina dagoen alternatiba bat baldin badauka menuak.

Egiatzapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Zerbitzuaren hornitzailearekin sinatutako kontratuaren kopia bat aurkeztu behar da, non plater alternatibo begetarianoaren edo % 100ean osagai ekologiko eta tokikoak dituen plateraren eskaintza modu esplizituan adierazi behar baita.

Osagai ekologikoak: nekazaritza ekologikotik eratorritakoak (EB 2018/848 araudi aldatua edo nazioarteko antzeko araua).

Tokiko edo 0 kilometroko osagaiak: «zero kilometroko elikagaiak»: 200 km-tik beherako distantzia egon behar du landutako luraren / laborearen eta elikagaia sukaldatzen den lekuaren artean (lekua barnekoa ala kanpokoia izan).

C4 KAFEA PLATOAN

Eskakizunak

Platoko kafe-zerbitzua eskaintzerakoan botatzeko edalontziak eta irabiatzeko hagatxoak erabilera saihestuz egin behar da.

Kafea aleak erabiliz edo kapsula konpostagarriak erabiliz egin behar da, eta kapsulak hondakin organikoen edukiontzian bota behar dira.

Kafea aleetan % 100 > 2 puntu

Kafe-kapsula % 100 konpostagarriak > puntu 1

Oharrak eta iradokizunak

Irizpide honetarako ez dira baimentzen botatzekoak diren plastikozko edo aluminiozko kapsulak.

Egiatzapen-prozedura

Puntuazioari dagokionez, kontuan hartzen dira filmaketan zehar platoan emandako kafe mota guztiak, eta adierazitako kasuetako puntuaziorik baxuena ematen da.

Dokumentuen egiaztapena

Katilu erabilgarrien eta koilaratxo/kafe irabiagailu garbigarrien erosketaren, eta aleko kafearen edo kapsula konpostagarrien faktura originalak edo kopiak aurkeztu.

Platoan bertan egindako egiaztapena

Egiaztapen-organismoak egindako platoen egiaztapenaren helburua hornikuntza ez onargarririk ez dagoela atzematea da.

C5 AHALEGINAK JANARIAK EZ XAHUTZEKO

Eskakizunak

Otordu nagusiei dagokienez, janari prestatu eta kontsumitu gabeak biltzeko zerbitzua eskaintzen duten ongintzako erakunde edo enprekin lankidetzan jardutea. Eskakizun hau platoon kontsumitutako otorduetarako bete behar da. Otordu nagusien % 100ak soberakinak doan emateko aukera barne hartzen du > 2 puntu

Otordu nagusien % 75ak soberakinak doan emateko aukera barne hartzen du > puntu 1

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Soberako janariaz arduratuko den pertsonarekin sinatutako akordioa aurkeztu, bai eta filmaketarako erabilitako platoon zerrenda bat ere, eta soberako janaria doan ematea aurreikusten den otorduak, portzentaje totala adieraziz.

Platoon bertan egindako egiaztapena. Platoon egindako egiaztapenaren helburua prestatutako eta ez kontsumitutako benetako berreskurapena egiaztatzea da, platoon kontsumitutako otorduei dagokienez bakarrik.

D ATALA

Materialen hautaketa



Helburua

Ingurumena ahal den gehiena errespetatzen duten materialak erabiltzea, lokalizazioen ongizatea eta platoan lan egiten duten pertsonen ongizatea bermatuz horrela. Materialen xahuketa saihestea, berrerabilerarako irtenbide eraginkorrak aurkituz.

D ATALA: MATERIALEN HAUTAKETA		Puntuak
D1	Produktu ziurtatuak <i>1. aukera: puntu 1</i> <i>2. aukera: puntu 1</i> <i>3. aukera: 3 puntu</i>	3 (gehi.)
D2	Material birziklatuak edo berrerabileratik eratorriak	1
D3	Material eszenografikoen dohaintza edo berrerabilera	3 (gehi.)
D4	Paperaren erabileraren murrizketa	1
D5	Produktu kosmetikoak	1

Irizpidearen deskribapena:

D1 PRODUKTU ZIURTATUAK

Eskakizunak

Platoen sorkuntzarako:

1. aukera:

EBko etiketa ekologikoarekin ziurtatutako pinturak bakarrik erabili, edo I motako (ISO 14024) ziurtatutako beste pintura batzuk.

2. aukera:

FSC edo PEFCekin ziurtatutako zura bakarrik erabili.

3. aukera (3 puntu):

Guztira 3 puntu ematen dira bi irizpideak betetzen badira.

Oharrak eta iradokizunak

Tokiko hornitzaileengana jotzea gomendatzen da, bai eta arreta berezia jartzea ere materialak ezabatzeko prozeduretan, bereziki pinturetan eta haien ontzietan.

Egiaztapen-prozedura.

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- platoak fabrikatzeko erabilitako hornigaien laburpen-taula bat;
- dagozkion fakturak;
- dagozkien ingurumen-ziurtagiriak, eskatutakoen artean.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Platoan egindako egiaztapenaren helburua zera da, ziurtatutako materialekin espezifikoki egindako dekoratuak ba ote dauden egiaztatzea (ziurtatutako zura edo pinturak).

D2 MATERIAL BIRZIKLATUAK EDO BERRERABILERATIK DATOZENAK

Eskakizunak

Eszenografia, atrezzo eta arropa hornitzeko, berrerabileratik edo birziklapenetik datozen materialak erabili, bai erosketa bidez, alokairuz edo enpresa eta elkarteekin egindako akordio bidez.

Oharrak eta iradokizunak

Birziklapena eta berrerabilera ingurumen-jasangarritasunaren funtsezko elementuak dira. Birziklatutako edo berrerabilitako eszenografia, atrezzo edo arropak erabiltzeak aurrezpen ekologikoa eta ekonomikoa bermatu ditzake. Irizpidea betetzea ez dago ikus-entzunezko obrak erabiltzen dituen materialen kantitate osoarekin alderatuta birziklatutako edo berrerabilitako dekoratu, atrezzo edo arropen materialen kantitatearen edo portzentajearen mende. Hala eta guztiz ere, beharrezkoa da eskakizuna betetzea kontuan hartutako tresneriako materialen hiru motetako bakoitzerako (dekoratuak, atrezzo eta arropak).

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- birziklatutako edo berrerabilitako eszenografia, atrezzo eta arropen materialen erabilera egiaztatzen duten idatzizko akordioak edo garraio-dokumentuak;
- birziklatutako materialen kasuan, birziklatutako osagaien froga (fitxa teknikoak edo antzekoak);

- berrerabilitako materialen kasuan, aurreko erabileraren frogak.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Platoan egindako egiaztapenaren helburua zera da, berrerabilitako materialekin espezifikoki egindako dekoratuak ba ote dauden egiaztatzea.

D3 MATERIAL ESZENOGRAFIKOEN DOHAINZA EDO BERRERABILERA

Eskakizunak

Filmaketa amaitzean, attrezzo berrerabilgarria edo ikus-entzunezko obrarentzat espezifikoki egindako eraikuntza eszenografikoak beste jarduera batzuen eskura uztea. Material hauek ekoizpenaren eskura egon daitezke eta behar bezala biltegiratu, edo hirugarren baten eskura jarri transferentziari dagokion akordio baten sinaduraren bidez, ondoren berrerabiltzeko.

Oharrak eta iradokizunak

Filmaketa baten amaieran, oraindik egoera onean dauden materialekin zer egingo den erabaki beharko da, berrerabileraren «zirkulu birtuoso» erraztuz eta materialak hondakin bihurtzea saihestuz.

Irizpide hau betetzeko, dekoratu bat sortzeko ekoizpenak espezifikoki eskuratu edo fabrikatu dituen material eszenografikoak bakarrik eduki behar dira kontuan (eta, beraz, ez arropen eta ibilgailuen alokairua, adibidez). Irizpidea betetzea ez dago honakoaren mende: ekoizpenak erabilitako material kopuru osoarekin alderatuta berrerabilitako materialen hornikuntza-katean zehar transferitutako material eszenikoen kantitatea edo portzentajea.

Egiaztapen-organismoak gehienez 3 puntu eman ahal izango ditu honakoaren arabera:

- dohaintzara edo berrerabilerara bideratutako kopurua, erabilitako materialen kopuru osoarekin alderatuta;
- onuradun mota, ongintzako erakundeen aldekoa, kooperatiba sozialak edo tokiko ekimen sozialak.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- ekoizlearen edo lineako ekoizlearen sinatutako aitortpena non

adieraziko baita attrezzoak edo dekoratuen eraikuntzak biltegitzeko eta berrerabiltzeko konpromisoa;

- beren berrerabilera bermatzen dutelarik, hirugarrenei egindako tresneriako elementuen edo eraikuntza eszenografiko berrerabilgarrien lagapena kreditatzen duten eta jasotzaileak baieztatu dituen garraio-agiriak edo erreziboak (jasotzea oraindik ez bada egin, bilketa arduratutako alderdiak sinatutako aitoren bat aurkeztu, non bilketa egiteko konpromisoa hartzen duen eta bilduko diren materialen zerrenda adierazten den).

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, egindako aitorenak egiazkoak direla ziurtatzea, informazioa eta datuak zuzenean hartuz.

D4 PAPERAREN ERABILERAREN MURRIZKETA

Eskakizunak

Paperean egindako komunikazioa ahal den gehiena murriztu: esku-hartzeen zerrendei dagozkien barne-komunikazioetarako, ibilgailu motordunekin egin behar diren lekualdaketak, eta filmaketako taldekideei jakinarazi behar zaien beste edozein informazio erabilgarri, ahal den neurrian komunikazio elektronikoa erabiliz.

Oharrak eta iradokizunak

Paperezko komunikazioa derrigorrezkoa den beste kasuetan, EBko etiketa ekologikoa edo I motako (ISO 14024) beste etiketa bat duen paper ziurtatua erabili.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Bitarteko telematikoen bidez zabaldutako barne-komunikazioen lagin digital baten jatorrizkoa edo kopia aurkeztu, eta ekoizleak edo lineako ekoizleak sinatutako aitoren bat honako hau adieraziz: ahal den guztietan komunikazio telematikoa erabiliko dela eskusiboki.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, paperean inprimatutako eta nahitaezkoa ez den jakinarazpenik ez dagoela bermatzea.

D5 PRODUKTU KOSMETIKOAK

Eskakizunak

Makillaje eta ile-apainketa departamentuarentzat, EBko etiketa ekologikoarekin edo I motako (ISO 14024) beste etiketaren batekin ziurtatutako produktuak bakarrik erabili, edo produktuek nekazaritza ekologikotik datozen osagaien gutxienez % 95 daukatela adierazten duten ziurtagiriak ((EB) 2018/848 Araudia, bere bertsio aldatuan edo antzeko nazioarteko araua).

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- produktu kosmetikoen horniduren laburpen-taula bat;
- dagozkion fakturak;
- dagozkien ingurumen-ziurtagiriak, eskatutakoen artean.

Oharrak eta iradokizunak

Produktu kosmetikoen artean barne hartzen dira xaboiak, xanpuak, ile-egokitzaileak, bizarra mozteko kremak, bai eta argitzerik behar ez duten produktuak ere, hala nola, kremak, olioak, ile-apainketako produktuak eta makillajea.

Irizpide honi dagokionez, ingurumen-ziurtapenerako I motako ingurumen-ziurtapena badaukaten produktu kosmetikoak bakarrik hartuko dira kontuan (EBko etiketa ekologikoa edo antzekoa).

Platoan bertan egindako egiaztapena. Platoan egindako egiaztapenaren helburua zera da, eskakizuna betetzen ez duen produkturik ez dagoela egiaztatzea.

E ATALA

Beste ekimen batzuk



Helburua

Irizpide honek honako hauek biltzen ditu: aurrez zerrendatutako irizpideekin bat ez datozen eta ingurumen-inpaktua murriztera bideratutako edo ekoizpenak hartutako praktika onak sustatzeko beste ekimen batzuk.

E ATALA: BESTE EKIMEN BATZUK		Puntuak
E1	Karbono-aztarnaren kalkulua	3
E2	Neurrirako ekimena	2 (gehi.)

Irizpidearen deskribapena:

E1 KARBONO-AZTARNAREN KALKULUA

Eskakizunak

Ekoizpenaren CO2 emisioak kuantifikatzea ikus-entzunezko produkzioetarako espezifikoki garatutako karbono-aztarnaren kalkulagailu bat erabilita.

Oharrak

Emisioen kuantifikazioa linean eskuragarri dagoen erreminta batekin edo aditu baten laguntzarekin egin daiteke, betiere azterlana ISO 14067 arauan oinarritzen bada (edo nazioartean aitortutako antzeko arauetan) eta ekoizpenaren emisio-iturri nagusiak kontuan hartzen baditu (energia, garraioa, ostatua, cateringa, materialak, hondakinak).

Egiatzapen-prozedura

Dokumentuen egiatzapena. Kalkuluaren froga txosten edo antzeko dokumentu baten bitartez aurkeztu, non lortutako emaitzen laburpena erakutsiko baita (adibidez, web interfaze bat).

E2 NEURRIRAKO EKIMENA

Eskakizunak

Ekoizpenak bestelako neurriak hartu ahal izango ditu, egiaztapen-organismoak egiaztagarriak eta ebaluagarriak izango direnak, proiektuaren berariazkotasunen arabera diseinatuak eta pertsonalizatuak.

Oharrak eta iradokizunak

Ekoizpen bakoitzak bere berariazkotasun propioak dauzka, eta baliteke aurrez azaldutako irizpideen ondorioz, merezi duten ekimen batzuk ez kontuan hartuak izatea. Irizpide honen helburua ekimen merezimendudun horiek saritzea da, baldin eta eragiten dituzten ingurumen-onuren edo onura sozialen terminoetan esanguratsuak direla ulertzen bada. Horretarako, aldez aurretik egiaztapen-organismoarekin adostea iradokitzen da.

Egiaztapen-prozedura

Ekimenaren arabera, aurkeztu itzazu dokumentu egokiak erantsitako justifikagiriekin, platoon bertan egindako egiaztapena baino lehen edo egiaztapenean zehar. Hurrengo irizpidean aipatutako ekimenak baliozkotzat hartzen dira egiaztapen-prozedura amaitu baino lehen aplikatzen badira, eta gehienez bi puntu jaso ditzakete.

F ATALA

Gizarte- jasangarritasuna



Helburua

Irizpide honen helburua zera da, ikuspuntu sozial batetik ekoizpenaren jasangarrtasuna hobetzera bideratutako lan-praktikak gauzatzera animatzea ekoizleak.

Bereziki, taldearen eta langileen ongizate psikofisikoa hobetzera bideratuta daude iradokitako ekintzak, bai eta ekoizpen-prozesuan jasangarritasunaz jabetzen diren tokiko hornitzaileen partaidetza bultzatzera ere.

F ATALA: JASANGARRITASUN SOZIALA		Puntuak
F1	Ongizatea platoan <i>Ekoizpenaren Balioen Gutuna: Puntu 1 Platoan ongizatea hobetzeko ekimenak: 2 puntu</i>	2
F2	Hornitzaile jasangarrien hautaketa	3
F3	Tokiko hornitzaileak	3

Irizpidearen deskribapena:

F1 ONGIZATEA PLATOAN

Eskakizunak

- Filmaketa hasi baino lehen ekoizpen baten Balioen Gutuna idaztea eta filmaketako taldeari eta langileei banatzea > puntu 1
- Filmaketan zehar taldearen eta langileen ongizate psikofisiko eta soziala hobetzera bideratutako ekimenak abian jartzea > 2 puntu

Oharrak eta iradokizunak

Platoan langileen duintasuna eta eskubideak babesten dituzten irizpideak eta printzipioak kontuan dauzkan balioen gutun bat edo kode etiko bat onartzeko erabakiak lan-ingurune positiboago eta integratzaileago bateranzko urrats

esanguratsu bat adierazten du.

Ekoizpen bateko balioen gutun baten adibide on bat lortzeko, kontsulta ezazu Women in Film, Television & Media Italia elkarteak (wiftmitalia.it) landutako Ikus-entzunezko Sektorerako Jokabide Etikoaren Gutuna. Genero-berdintasun kulturala eta laborala eta aniztasuna bere alderdi profesional guztietan babesteko eta sustatzeko landutako gutuna da. Barne hartuta daude: sexu-jazarpena, intimidazio-ekintzak eta diskriminazio-modu guztiak, genero-indarkeria eta gorputzari egindako kritikak lantokian.

Platoan inguru osasungarri bat sustatzeko beste urrats garrantzitsu bat zera da, ekoizpen jakin batek lotuta dauzkan lan-kargaz eta estresaz konturatzea eta langileen ongizaterako arrisku posibleak ahal den neurrian murrizteko neurriak hartzea.

Baliabide asko garatu dira lantokiko ongizate psikofisikoa eta soziala sustatzeko, hala orokorrak nola ikus-entzunezko sektorearentzako espezifikoak. Gainera, langile profesional berri espezifikoek (adib., ongizatearen bideratzaileek) funtsezko zeregin bat bete dezakete lan-inguru osasungarriago bat sustatzeko garaian.

Ekimenak green-film webgunean dauden aukeren artean hautatu behar dira, F atalari zuzendutako orrian: «Gizarte-jasangarritasuna».

Platoan ongizatea hobetzera bideratutako ekimenak alde aurretik egiaztapen-organismoarekin adostea iradokitzen da.

Ekimenak eta haien puntuazioak elkarrekin batu daitezke, gehienez 3 puntuko puntuazioa lortu arte.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

1. aukera:

Filmaketa hasi baino lehen ekoizpenaren Balioen Gutuna eta filmaketako taldeari eta langileei banatu izanaren frogak:

2. aukera:

Dokumentu garrantzitsuak (edozein justifikagiriarekin) filmaketa-taldearen eta langileen ongizatea hobetzera bideratutako ekintza bat edo gehiago aplikatu izana frogatzen dutenak. Ekintzak green-film webgunean dauden aukeren artean hautatu behar dira, F atalari zuzendutako orrian: «Gizarte-jasangarritasuna».

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua honakoak ebaluatzea da:

1. aukera: Filmaketa hasi aurretik taldeak eta langileek Balioen Gutuna benetan jasotzea;

2. aukera: Abian jarritako ekimenei buruz egindako adierazpenen egiazkotasuna, informazioa eta datuak zuzenean eskuratuta.

F2 HORNITZAILE JASANGARRIEN HAUTAKETA

Eskakizunak

Ikus-entzunezko ekoizpenaren hornitzaile guztien % 30 gutxienez:

- ongintzako korporazio bat edo gizarte-kooperatiba bat da (edo hirugarren sektoreko beste entitate bat);
- hirugarrenen gizarte-ziurtapen bat dauka SA 8000 arauaren arabera;
- ISO 14001 arauaren edo EMAS erregistroaren araberako ingurumen-ziurtapen bat dauka.

Oharrak eta iradokizunak

Irizpide hau ekoizpeneko hornitzaile nagusi guztiei aplikatzen zaie. Hornitzaile nagusitzat hartzen dira aurrekontuaren zati garrantzitsu bat jasotzen dutenak edo ekoizpenerako zerbitzu/produktuen hornikuntza garrantzitsua egiten dutenak edo ingurumenerako edo gizartearentzako arrisku bat daukatenak (adib., eszenografiarentzat, haurren lanaren arriskua edo segurtasunerako arriskuak).

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- ziurtatutako hornitzaileen fakturak;
- bidezko ingurumen-ziurtapenak, eskatutakoen artetik.

F3 TOKIKO HORNITZAILEAK

Eskakizunak

Ikus-entzunezko hornitzaileen gutxienez % 30ak zerbitzua edo hornigaiak ematen dizkieteneko platoetatik gehienez 200 km-ko distantziara daukate beren egoitza operatiboa.

Oharrak eta iradokizunak

Irizpide hau ekoizpeneko hornitzaile guztiei aplikatzen zaie. Hornitzaile nagusitzat hartzen dira aurrekontuaren zati garrantzitsu bat jasotzen dutenak edo ekoizpenerako zerbitzu/produktuen hornikuntza garrantzitsua egiten dutenak edo ingurumenerako edo gizartearentzako arrisku bat daukatenak (adib., eszenografiarentzat, haurren lanaren arriskua edo segurtasunerako arriskuak).


Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- hornitzaileen zerrenda, hornitutako ondasun/zerbitzuak adieraziz, bai eta zerbitzua eman zitzaien platoetaraino eragiketa-zentroetatik errepidez dagoen distantzia erlatiboen zerrenda ere, distantziak kartografia geografikoko edozein erremintaren bidez kalkulatuta eta tokikotzat hartzen diren hornitzaileen portzentajea erakutsiz, eskakizunaren arabera;
- tokiko hornitzaileen fakturak.

G ATALA

Komunikazioa



Helburua

Ikus-entzunezko lana sustatzea eta ezagutzera ematea, industriak jasangarritasunari lotutako praktika onak hartzen dituela publikoki jakinaraziko dituzten komunikazio-ekintzen bidez ere. Publikoa eta taldea ingurumen-jasangarritasunari buruzko gaiei buruz sentsibilizatzea. Kontuan hartu behar da derrigorrezkoa dela Green Film logotipoa agertzea ez bakarrik kreditu-tituluetan, baizik eta ikus-entzunezko obraren publizitate-material eta sustapenekoetan ere. Kredituek honako testu hau eduki behar dute: «[filmaren titulua] [Green Film-en logotipoa] bat da».

F IRIZPIDEA: KOMUNIKAZIOA		Puntuak
G1	Jasangarritasunaren komunikazioa <i>Trailerra / klipa / ekoizpenaren eguneroko irudiak: Puntu 1</i> <i>Filmaketa-taldearen prestakuntza: 2 puntu</i> <i>Ekoizpenak proposatutako ekimena: Puntu 1</i>	4 (gehi.)

Irizpidearen deskribapena:

G1 JASANGARRITASUNAREN KOMUNIKAZIOA

Eskakizunak

Komunikazioaren eraginkortasuna hobetzeko ekimenak aktibatzea eta ikus-entzunezko obra jasangarri bihurtzeko praktika onak sustatzea, ingurumen-jasangarritasunari buruzko gaien inguruan kontzientziazioa eta emaitzak hobetzeko.

Jasangarritasuna sustatzeko ekimenak hauei buruzkoak dira:

- trailer baten ekoizpena eta banaketa / klipa / hartu diren jasangarritasun-praktika egokiei buruzko eguneroko lanaren irudiak;
- platoan gauzatu diren eta gauzatu diren praktika onei buruz talde osoak daukan prestakuntza, bai eta bileren bidez edo informazio-materiala (Green Meno) sortuz eta zabalduz, jasangarritasun-planerako

aurreikusitako hasierako bilera salbu;

- ekoiztetxeak proposatutako beste ekimen egiaztagarri bat; ekimena **egiaztapen-prozesua amaitu aurretik gauzatu eta jakinarazi beharko da.**

Oharrak eta iradokizunak

Trailerrak / klipak / eguneroko irudiek (platoko bideo-irudiekin eta elkarrizketekin) zera erakutsi nahi dute modu labur eta eraginkorren: Green Filmeko sailkapen-sistemaren hautatutako ekintzetako bakoitza aplikatu den modua. Bideoa **egiaztapen-prozesua amaitu aurretik** egin eta zabaldu behar da eta Green Filmeko ziurtapen-organismoari ere entregatu behar zaio, Green Filmeko webgunearen orri batean argitaratzea baimenduz.

Ekimenak eta haiei dagozkien puntuak gehitu egin daitezke, gehienez 4 puntura iristeko.

Egiaztapen-prozedura

Dokumentuen egiaztapena. Ondoko dokumentuen jatorrizko agiriak edo kopiak aurkeztu behar dira:

- trailerra / klipa / ekoizpenaren eguneroko irudiak eta haien banaketaren frogagiriak; edo
- Green Memos-en prestakuntzako edo hedapeneko bileren frogak; edo
- beste dokumentu egoki batzuk.

Platoan bertan egindako egiaztapena. Egiaztapen-organismoak egindako platoko egiaztapenaren helburua zera da, egindako aitortpenak egiazkoak direla ziurtatzea, informazioa eta datuak zuzenean hartuz.

AURRE-ESKAKIZUNA (derrigorrezko eskakizuna): JASANGARRITASUNAREN PLANGINTZA		Egiaztapen-zerrenda
PR1	Jasangarritasun-plana	✓

A ATALA: ENERGIA AURREZTEA		Puntuak
A1	Banaketa-saretik datorren elektrizitatearen erabilera	4 (gehi.)
A2	Energia ez kutsagarria	3 (gehi.)
A3	LED argiztapena	2 (gehi.)

B ATALA: GARRAIOA ETA OSTATUA		Puntuak
B1	Ekipoen garraiorako ibilgailu teknikoak	2
B2	Eguneroko lekualdaketak filmaketan zehar	4 (gehi.)
B3	Etetik lanerako bidaiak eta platoon arteko lekualdaketak	3 (gehi.)
B4	Ostatua: platotik 10 km baino gutxiagora	4 (gehi.)
B5	Ostatua: ostatu ziurtatuak	3 (gehi.)

C ATALA: CATERING		Puntuak
C1	Edateko ura <i>1. aukera: 3 puntu 2. aukera: 2 puntu</i>	3 (gehi.)
C2	Bazkarien hornidura <i>1. aukera: 4 puntu 2. aukera: 3 puntu 3. aukera: 2 puntu</i>	4 (gehi.)
C3	Aukera begetarianoa, ekologikoa edo tokikoa <i>Jaki begetarianoak: puntu 1 Osagai % 100 ekologikoekin edo tokiko ekoizpenekoekin prestatutako jakiak: Puntu 1</i>	2 (gehi.)
C4	Kafea platoon	2 (gehi.)
C5	Ahaleginak janariak ez xahutzeko	2 (gehi.)

D ATALA: MATERIALEN HAUTAKETA		Puntuak
D1	Produktu ziurtatuak <i>1. aukera: puntu 1 2. aukera: puntu 1 3. aukera: 3 puntu</i>	3 (gehi.)
D2	Material birziklatuak edo berrerabileratik eratorriak	1
D3	Material eszenografikoen dohaintza edo berrerabilera	3 (gehi.)
D4	Paperaren erabileraren murrizketa	1
D5	Produktu kosmetikoak	1

E ATALA: BESTE EKIMEN BATZUK		Puntuak
E1	Karbono-aztarnaren kalkulua	3
E2	Neurrirako ekimena	2 (gehi.)

F ATALA: JASANGARRITASUN SOZIALA		Puntuak
F1	Ongizatea platoan <i>1. aukera: puntu 1 2. aukera: 2 puntus</i>	2
F2	Hornitzaile jasangarrien hautaketa	3
F3	Tokiko hornitzaileak	3

G ATALA: KOMUNIKAZIOA		Puntuak
G1	Jasangarritasunaren komunikazioa <i>Trailerra / klipa / ekoizpenaren eguneroko irudiak: Puntu 1 Filmaketa-taldearen prestakuntza: 2 puntu Ekoizpenak proposatutako ekimena: Puntu 1</i>	4 (gehi.)

Guztira 65



www.green.film



Green Film honako hauen lankidetzan garatu da



AGENZIA PROVINCIALE PER LA PROTEZIONE DELL'AMBIENTE

Cine-Regio eta



European network of regional film funds



Italian Film Commissions

Italian Film Commissions-ek aukeratua ingurumen-irakuntasuneko ikus-entzunezko proiektuen ziurtapenerako tresna komun gisa.

Bazkideak



Ilustrazioak
Federica Bordonio

Paper hau baso jasangarrietatik eratorritako egurretik lortutako produktu naturala eta birziklagarria da.

